



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa



ETIQUETADO DE LOS PIENSOS Y SUS MATERIAS PRIMAS

PENTSUEN ETA HORIEN LEHENGAIEN ETIKETATZEA

Sarrera

EBBen eta dioxinen krisialdiaren ondorioz, 2002. urtetik aurrera pentsuen etiketetan derrigorrean adierazi behar da pentsuen lehengai guztien pisu-portzentajea.

Horren paretik, beste araudi batzuk sortu dira pentsuak osasuntsuak direla bermatzeko: 178/2002 Araudia eta 183/2005 Araudia. Legedia horrek azpimarratu egiten ditu pentsuen eta lehengaien

trazabilitatea, pentsu-eragileek ezarri beharreko autokontrol sistemak (APPCC) eta higiene praktika egokiak.

Hori dela bide, eta pentsuen etiketei buruzko betekizunak sinplifikatze aldera, pentsuetarako lehengaien eta pentsu konposatuen zirkulazioari eta etiketatzeari buruzko zuzentarauak berrikusten ari da Batzordea.

Gaur egungo araudia

Gaur egun 56/2002 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, dago indarrean. Dekretu horrek alde batetik animaliak elikatzeko lehengaien zirkulazioa eta erabilera arautzen ditu, eta, bestetik, pentsu konposatuen zirkulazioa.

Araudi horretan ezarritako etiketatze sistemaren arabera, ontzian, ontziari itsatsitako etiketan edo ontziek horretarako izaten duten lekuan, honako datu hauek azaldu behar dute derrigorrean:

- Pentsuen izen zehatza. Adibidez: “pentsu osoa”, “pentsu osagarria”.
- Pentsu konposatua zein animalia espezierentzat den.
- Nola erabili behar den.
- Animaliak elikatzeko lehengaiak.
- Pentsu motaren arabera, osagai analitikoak (proteina, zelulosa eta beste).
- Ekoizle-etxearen izena edo izen soziala eta helbidea.
- Eduki garbia, masa-unitateetan adierazita.
- Pentsuaren iraunkortasun data.
- Lotearen erreferentzia-zenbakia edo ekoizpen data.
- Baimen-zenbakia.

Hautazko aipamenen artean, honako hauek aipatzen ditu araudiak:

- Etiketaren arduradunaren identifikazio-marka edo marka komertziala.
- Ekoizlearen identitatea, etiketaren arduradun izan ezean.
- Ekoizpen herrialdea.
- Produktuaren salneurria.
- Ekoizpen data.
- Eta beste.

254/2003 Errege Dekretuak 56/2002 Errege Dekretua aldarazi zuen eta 2002/2/CE Zuzentaraua ordeztu zuen. Zuzentarau horren arabera, derrigorrean adierazi behar dira formularen osagai guztiak ehunekoetan, lehengai bakoitzean adierazitako balioaren % 15eko tolerantzia-tartearekin, gutxi gorabehera.

Zuzentaraua ez zen berdin aplikatu Europako herrialdeetan, pentsuen ekoizleak aurka zeuden eta. Ekoizleek zioten osagaien ehunekoak adierazi beharrak industriaren jabetza intelektuala urratzen zuela.

Adibidez, Danimarkan, Suedian eta Finlandian etiketen betebeharrak guztiak bete zituzten bitartean, Erresuma Batuan, Italian eta Frantzian zuzentaruaren aplikazioa geldiarazi egin zuten. Espainia, ordea, “linbo juridikoan” zegoen, hau da, indarrean zegoen transposizio araua

Gaur egungo araudia

(254/2003 Errege Dekretua), baina ez zen betetzen. Hau ikusirik, Luxenburgoko auzitegiak epaia eman zuen, eta Batzordeak jakinarazi zien Eskatu Kideei Erkidego mailako zuzenbidea urratzen ari zirela, etiketei buruzko araudia eraginkorki ez ezartzeagatik. Jakinarazpen horren ondoren, autonomia erkidego guztiek exijitu zuten lehenbailehen adieraztea lehengai guztiak eta horiek formulatan zein portzentajetan azaltzen ziren.

Gaur egun, pentsuen etiketetan adierazi egiten da pentsua osatzen duten lehengaien portzentajea.

Etorkizuneko aldaketak

Gaur egun, pentsuen merkaturatzeari eta erabilerari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudiaren proposamen bat lantzen ari da Batzordea. Helburua da pentsuen etiketen betebeharrak sinplifikatzea.

Honako hauek dira araudiaren giltzarriak:

1 Etiketatzea

Ez dira lehengaien portzentajeak derrigorrean adierazi beharko. Nolanahi ere, ekoizleak portzentaje horiek (% 15eko tolerantzia-tartearekin, gutxi gorabehera)

edo formula zehatza adierazi beharko ditu honako egoera hauetan:

- Bezeroak hala eskatzen badu (betiere pentsuen ekoizlearen jabetza intelektuala urratzen ez bada).
- Aginte eskudunek hala eskatzen badute.
- Animalien, gizakien edo ingurumenaren osasuna arriskuan badago.

2 Lehengaien katalogoa

Pentsuen lehengaien Erkidego mailako katalogoa osatuko da, eta lehengaien etiketak hobetzeko tresna izango da. Lehengaien datu hauek sartuko dira katalogoan:

- Izena.
- Identifikazio-zenbakia.
- Lehengaiaren deskripzioa eta ekoizpen prozesuaren informazioa.
- Osaera nutrizionalari buruzko berariazko aipamena.
- Prozesuen definizioen eta aipatutako teknika adierazpenen glosarioa.

3 Etiketatzeko praktika egokien Kodeak

Batzordeak etiketatzeko praktika egokien Erkidego mailan erabiltzeko Kode bi hauek osatzea bultzatuko du: bata, laguntza-animalientzako elikagaiei buruzkoa, eta bestea, elikagaietarako diren animalientzako pentsuei buruzkoa.

Etorkizuneko aldaketak

Kode horiek osatuko dira pentsuen ekoizpeneko Europako sektoreen ordezkariari kontsultatu eginda, Estatu Kideetako aginte eskudunekin elkarlanean eta, hala dagokionean, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agentziarekin elkarlanean ere (kontuan izanik emandako irizpen zientifikoak eta ezagutza teknikoaren garapena).

4 Araudiaren egutegia:

Azkenik, azpimarratzekoak dira lehengaien eta pentsuen merkaturatzeari buruzko araudi berriaren data nagusiak:

- Kontseiluak testua onestea: 2009ko apirilaren 23a edo 24a.
- Araudi berria argitaratzea: 2009ko maiatza edo ekaina.
- Estatu Kideetan indarrean jartzea: 2010eko ekaina.

Ondorioak

Araudi hau sinplifikatuta geratu ondoren Batzordeak lortu nahi du giza kontsumorako elikagaien eta animalientzako pentsuen etiketen betebeharrak parekatzea, eta, horrela, industriaren jabetza intelektuala babestea; izan ere, ez dituzte zehaztu behariko pentsua osatzen duten lehengaien portzentajeak. Horrek, ordea, ez du eraginik izango pentsuen segurtasuna maila bermatzeko helburuan.

Halaber, etiketatzeari buruzko araudia aldatzearen helburua da nekazaritza sektorearen eta Europa Batasuneko pentsuen lehiakortasuna areagotzea, teknika betebeharrak murriztuz eta beharrezkoak ez diren administrazio oztupoak ezabatuz.

Azkenik, adierazi nahi dugu etiketa pentsuen erabiltzaileei, hau da, abeltzainei informazioa eskaintzeko tresna dela; beraz, komunikabidea denez, etiketak ahalik eta sinpleena eta argiena izan behar du.